

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 454/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, 2008ko maiatzaren 21ekoa, 998/2003 (EE) Erregelamendua — konpainiako animalien asmo komertzialik gabeko joan-etorrietan bete beharreko arau zoo-sanitarioak onartzen dituena— aldatzen duena, epe iragankorra luzatzeari dagokionez.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «REGLAMENTO (CE) N° 454/2008 DEL PARLAMENTO Y DEL CONSEJO, de 21 de mayo de 2008, que modifica el Reglamento (CE) n° 998/2003, por el que se aprueban las normas zoosanitarias aplicables a los desplazamientos de animales de compañía sin ánimo comercial, en lo que respecta a la ampliación del período transitorio» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 145/238, 2008/6/4koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

**EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 454/2008 (EE) ERREGELAMENDUA
2008ko maiatzaren 21ekoa**

998/2003 (EE) Erregelamendua —konpainiako animalien asmo komertzialik gabeko joan-etorrietan bete beharreko arau zoo-sanitarioak onartzen dituena— aldatzen duena, epe iragankorra luzatzeari dagokionez.

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Trataturia aztertu dute, eta, bereziki, haren 37. artikulua eta 152. artikuluko 4. paragrafoko b) idatz-zatia,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Gizarte eta Ekonomia Komitearen irizpena ⁽¹⁾ aztertu dute,

Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin diote,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedura ⁽²⁾ bete dute,

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) 998/2003 (EE) Erregelamendua ⁽³⁾ finkatzen ditu konpainiako animalien asmo komertzialik gabeko joan-etorrietan bete beharreko baldintza zoo-sanitarioak eta joan-etorri horietan egin beharreko kontrolatan bete beharreko arauak.

(2) Horrekin batera, 998/2003 (EE) Erregelamenduko 6. artikuluan finkatzen denez, Erregelamendua indarrean sartu eta bost urteko epe iragankorrean, baldintza bereziak bete beharko dira Irlandan, Maltan, Suedian eta Erresuma Batuan konpainiako katu nahiz txakurrak sartzeko, estatu kide horiek amorruari dagokionez duten egoera berezia dela eta.

(3) 998/2003 (EE) Erregelamenduko 61. artikuluan finkatzen denez, Erregelamendua indarrean sartu eta bost urteko epe iragankorrean, ekinokosia eta akainak kontrolatzeko arau bereziak dituzten estatuak arau horiek betearazi ahal izango dizkiete beren lurraldean sartu nahi diren konpainiako animaliei. Finlandiak, Irlandak, Maltak, Suediak eta Erresuma Batuak beren arau bereziak aplikatzen dituzte ekinokosiari aurre egiteko; Irlandak, Maltak eta Erresuma Batuak akainen aurkako tratamendu osagarria eskatzen diete konpainiako katu eta txakurrei, eta tratamendu hori behar bezala jaso behar da animalien pasaportean.

(4) 2008ko uztailaren 3an amaitzen dira 998/2003 (EE) Erregelamenduko 6. eta 16. artikuluetan finkatutako araubide iragankorrak. Erregelamendu horretako 23. artikuluari jarraiki, epe iragankorra amaitu baino lehen berrikusi behar dira araubide iragankor horiek.

(5) Horretarako, eta 998/2003 (EE) Erregelamenduko 23. artikuluekin bat etorritik, Batzordeari eskatu zitzaion proba serologikoa eskatzen jarraitzeko beharrari buruzko txosten bat egiteko eta Europako Parlamentuan eta Kontseiluan aurkezteko. Horrekin batera, Erregelamendu horretako 6., 8. eta 16. artikuluetan finkatutako araubide iragankorren ondoren aplikatu beharreko araubidea finkatzeko proposamenak egin beharko ditu Batzordeak. Txosten horretan bi alderdi hauek hartuko dira oinarritzat: ordura arte bildutako esperientzia eta Europako Elikagaien Segurtasunerako Agintaritzak (EFSA) emandako irizpen zientifiko batean oinarritutako arrisku-ebaluazioa.

(6) Batzordeak hala eskatuta, EFSAk irizpen zientifiko bat argitaratu zuen, 998/2003 (EE) Erregelamenduan egin beharreko aldaketa egoki eta zientifikoak proposatzen laguntzeko. Bestalde, Batzordeak aintzat hartu behar zituen

(1) 2007ko abenduaren 12ko Irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea).

(2) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008ko urtarrilaren 10ekoa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko maiatzaren 19koa.

(3) L 146 EO, 2003/06/13koa, 1. or. Azkenik, Batzordearen 245/2007 (EE) Erregelamendua aldatutako Erregelamendua (L 73 EO, 2007/03/13koa, 9. or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

estatu kideek Erregelamenduko 6., 8. eta 16. artikulua aplikatuz bildutako esperientzian oinarrituta osatutako txostenak ere.

(7) Dena den, ebaluazio zientifikoak hasieran pentsatutakoa baino luzeago jo duenez, berandutu egin da Batzordearen txostena. Hortaz, araubide iragankorren epea luzatzea komeni da, txosteneko ondorioak aintzat hartu ahal izateko.

(8) Horri jarraiki, 998/2003 (EE) Erregelamendua aldatuko da, horrenbestez.

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

998/2003 (EE) Erregelamendua honela aldatu da:

1) 6. artikuluko 1. paragrafoko sarrerako esaldiaren ordezkari testu hau jarri da: «1. 2010eko ekainaren 30era arte, I. eranskinen A atalean aipatzen diren konpainiako animaliak Irlandan, Maltan, Suedian eta Erresuma Batuan sartu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:».

2) 16. artikuluko lehen lerroaren ordezkari testu hau jarri da: «2010eko ekainaren 30era arte, Finlandiak, Irlandak, Maltak, Suediak eta Erresuma Batuak, batetik, eta Irlandak, Maltak eta Erresuma Batuak, bestetik, Erregelamendu hau indarrean sartzean indarrean dauzkaten arau bereziak betearazi ahal izango dizkiete beren herrialdeetan sartu nahi diren konpainiako animaliei, ekinokokosiaren eta akainen aurka borrokatzeko.

3) 23. artikuluan, «2008ko urtarrilaren 1a» dataren ordezkari «2010eko urtarrilaren 1a» jarri da.

2. artikulua

Erregelamendu hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeita egunera sartuko da indarrean.

Erregelamendu honen elementu guztiak dira bete beharrekoak eta estatu kide bakoitzean zuzenean aplikatzekoak.

Estrasburgon emana, 2008ko maiatzaren 21ean.

Europako Parlamentuaren izenean, presidentea: H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean, presidentea: J. LENARČIČ